

## ELEIZALDE IKASTOLAN SUKALDE- ETA BEGIRALE-KOORDINAZIO ARDURADUN LANETAN ARITZEKO LAN POLTSA

### 1. Baldintzak:

Derrigorrezkoa da:

- Euskalduna izatea, ahozkoan **euskara ondo menperatzea**.
- Elikagaien manipulatuzaile agiria eskura izatea

### 2. Baremazioa:

#### a. Ikastolagaz lotura (ez metagarriak).

Eleizaldeko Ikasle ohia	2 puntu
Bazkide erabiltzailea	1,5 puntu
Bazkide ez erabiltzailea	1 puntu
Beste ikastola bateko ikasle ohia	0,5 puntu

#### b. Sukalde- edo/eta begirale-koordinatzaile lanetan esperientzia (Gehienez 5 urte, gehienez 5 puntu).

Eleizalde Ikastolan, dagokion postuan	Urteko 1 - Hileko 0.0833
Eleizalde Ikastolan, beste posturen batean	Urteko 0.5 - Hileko 0.0416
Beste ikastola batean, dagokion postuan	Urteko 0.75 - Hileko 0.0625
Beste ikastola batean, beste posturen batean	Urteko 0.375 - Hileko 0.0313
Beste ikastetxe batean, dagokion postuan	Urteko 0.5 - Hileko 0.0416
Beste ikastetxe batean, hezkuntzako posturen batean	Urteko 0.25 - Hileko 0.021

#### c. Baremazorako beste puntu batzuk.

Elkarrizketa, gehienez	5 puntu
Euskara egiaztagiriren bat	0,5 puntu

### 3. Prozedura eta epeak:

a. **Eskaria** DERRIGORREZ idazkaritzan formularioaren bidez egin behar da, irailaren 18tik 22ra goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte. **BEHARREZKOA DEN TITULAZIO GUZTIA** ere ekarri egin behar da. **Esleipena** irailaren 25-29 bitartean egingo da.

b. Eskarian adierazitakoen arabera, izena eman duen bakoitzari dagokion puntuazioa esleituko zaio.

c. Sailkatutako lehen bostei ahozko elkarrizketa egingo zaie (data zehaztatuko da). Beharrezkotzat joz gero, pertsonalitate proba ere pasatuko da.

d. Gainerakoak lan poltsan geratuko dira eta, behar izanez gero, beste elkarrizketa tanda bat zabalduko genuke.

Bermeon 2017ko irailaren 14an